

DURANGOKO AZOKA ETA GEROKOAK

Urtero bezala, Durangoko Azoka heldu, hedatu, gauzatu eta burutu dugu. Orain liburu, izen eta zenbakiei erreparatzeko unea iritzi zaigu. Norberak berea, gureak emakumeenak. Halere, ez gara bakarrak, emakumeen literatur garrantzia edota lekuaz ari garenok. Irakurri al duzue, adibide bat jartzearen, azoka bukatu eta biharamunean, (2008/12/9) EL CORREOn argitaratu zen LAS MUJERES TOMAN LA PALABRA izeneko artikulua?? Eta konturatu zineten zekarren azpigituluaz?: "las escritoras se han hecho un hueco decisivo en las mesas de novedades de la Azoka" Artikulo horretan INAKI ALDEKOAK zera dio: "que ve en el cambio de siglo la incorporacion total y exitosa de la mujer a la creación literaria en euskera. (...) Para Aldekoa" hasta el año 2000, aproximadamente, podemos hablar de nombres concretos. A partir de ese momento *escritores y escritoras están a la par.*"

Irakurri genuen ia geu beste azoka batean egon ginen galdetu genioke gure buruei ezen geu ere azokatik ibiliak ginen eta ez genuen emakume idazle izen berririk topa, ez emakume baten poesia liburu berririk (ikusituenak uda ostekoak baitziren) nobela berririk ez... zelan da posible Aldekoak "A la par" gaudela esatea eta geu ez ohartzea? Bagenekien, jakin, 2007ko azokan emakume idazleak %15 baino ez ginela. baliteke urte batean emakumeok falta zitzaigun %35 hura eskuratzea eta behingoz eta benetan "A la par" egotea?

Gure susmo eta esperientzia kontrakoa zan, beraz, Nobedade Katalogoa hartu genuen, eta bere bitartez zera jakin dugu:

katalogoan agertzen den hitza ez dela IDAZLEA baizik eta EGILEA. Zuzendu behar den lehengoa: El CORREOko azpigitulua :"**Las autoras** se han hecho..." jarri beharko luke eta ez "Las escritoras..."

Aurten, 396 EGILE agertzen dira katalogoan. Haien artean gizonak 284, emakumeak 112 hau da, gizonak % 72a, geu %28a. Ez dakigu zertan oinarritzen den Iñaki Aldekoa esana esateko baina, **%28a ez da "a la par" egotea**. Gustura egongo ginateke, seguruenik, baina ez gaude. Hala eta guztiz ere, iazko portzentaia ia bikoizten du zenbakiak. Geroago konturatu gara EGILE hitzak dakarrela aldea. Emakumeok erizpide estuagoak jaso ditugu egiletzat hartu ahal izateko, Renoko Unibertsitateko **Linda Whitek** bere doktoretze tesi bikainean adierazten duen erara. Ez duzuela irakurri? Egia! 1996koa bada ere, oraindik ere, bere ingeles bertsioetik itzuli gabe baitago. Ia hurrengo urteko nobedade eta egileen artean White-ren Tesia dugun.

Egileez ari ginen, bai, baina... ze sortzaile mota dugu?

112 egile hoiien artean, aurkitu ditugun zenbakiak: 27 irudigile, (%24), 18 erderatik itzultako egile (%16), 17 liburu tekniko egile, (%15) 14 itzultzaile (%12,5), 11 haur eta gazte literaturan egile, (% 9,8), 9k gaztelaniaz idatzi dute (%8), **6 euskal "idazle" (%5,35) Yolanda Arrieta: Uretan lez, Erein, artikulu bilduma liburu, Karmele Igartua: Hitzak Orbainetan, Euskaltzaindia Poesia liburu ez nobedadea, Tere Irastorza: Izendaezinaz Pamiela, Saiakera, Irati Jimenez: Laranja azalaren negarra, Kutxa Fundazioa, Ipuina, Miren Agur Meabe eta Lurdes Unzueta, Carniceria Manolo harategia: Haragi minetan. Bizkaiko Foru Aldundia, ipuinak) 3 biografia egile (%2,5), 3 koordinatzaile (%2,5), 2 ed, apaile (%1,8), komikigile bat (%0,8) eta 1 ingeles idatzia (%0,8)**

Aurreko zenbakiak ikusita ez dira idazleak (6) "las que se han hecho un hueco decisivo...", ikerlariak (17), itzultzaileak (14) euskeratuak (18) baino. Azpimarratu eta ikertu behar den fenomeno beste bat da, alegia IRUDIGILEAK, Zenbatu ditugun 27etatik 11 bertokoak baitira.

Katalogoan, ibildide luze eta arrastatsudunak aurkitu ditugu: **Asun Balzola**, eta bere lekukoa hartu duen **Elena Odriozola**. Odriozolaren irudiek ospe eta eragin handia ezagutu dute, dagoeneko. Bere liburu guztiguztiak gomendatzen ditugu. Nortasun handikoak dira **Aitziber Alonso: Tira tirita**. Ibaizabal, **Eider Eibar: Olatuak Ioretan**. Elkar, **Concetta Probanza** maistra da poesia liburuei irudiak sortzen, eta liburu bitxi bat edertu du oraingoan: *Zer da, ba, maitasuna?* Elkar; helduberriagoa, baina askotan entzungo dugu **Iraia Okina, Ilenia Mensajero**. Lan dotore eta fina. **Maite Gurrutxaga-k** primeran gainditu du Sarrionaindiaren *Gau ilunekoak* (Elkar) liburu irudiz laguntzeko zuen zailtasuna. **Mari Mar Aguirre, Yolanda Isasi, Lorena Martinez Oronoz, Ima Mendiola...** 2008ko azokan eta aspaldian dabilta gure haur eta gazte literatura liburuak ederragoak, borobilagoak izan daitezzen irudiak sortzen.

Aurtengo zerrenda luzeagoa izan daiteke, **Idoia Beratarbide, Begoña Durruty, Arantza Ibarra, Leire Iparragirre, Mainer kalonge, Belen Lukas, Agurtzane Villate...** eta gehiago ere. Beraz, aurrean ikertu eta aipatutakoa ondoren, geuk beste titular hau proposatzen dizuegu: "LAS MUJERES TOMAN LA IMAGEN". eta azpitulua. "de los libros infantiles y juveniles. Las escritoras, sin embargo, se toman un susmagarri? descanso"

Por zierto, Itxaro, Amaia, Laura, Uxue, Castillo, Aurelia, Sonia, Ines, Goizalde, Aintzane, Ixiar, Eider, Aitziber, Nora, Jasone, Arantxa, Karmele, Katixa. Leire... zuek, geroago, urtean zehar argitaratuko duzue, ezta?

SKOLASTIKA, susmoak hartuz...